




# ikastolak



## ARGIA IKASTOLA TUTERA



**A**rgia ikastolako Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek inkesta bat diseinatu dugu. LH eta DBHko 141 ikaslek parte hartu dute eta nagusitan zertan lan egin nahiko luketen edo beraien gustuko lanbideak zeintzuk izango liritekeen galdetu zaie.

Inkestan lanbide guztiak aipatzea ezinezkoa denez, multzokatzea otu zaigu. Hamabost ofizio multzotatik lau aukeratu behar izan dituzte. Horretaz gain, neska edo mutila den jarri behar izan da. 66 neskek eta 75 mutilek erantzun dute eta guztira 564 erantzun jaso ditugu.

Erantzunak bildu eta bateratu ondoren, kalkulu orri batean datuak sartu eta grafikoak egin ditugu. Azkenik, grafikoak aztertu, nesken eta mutilen datuak konparatu, eta ondorioak atera ditugu.

**NESKAK IRAKASLE, MUTILAK KIROLARI**  
Datuak aztertzeko bi irizpide jarraitu ditugu: lehenengo modu orokorrean aztertu ditugu, hau da, generoen arteko ezberdintasunak kontuan hartu gabe, eta gero nesken eta mutilen erantzunak bereiztu ditugu, genero bakoitzaren gustuak eza-gutzeko.

Modu orokorrean aztertuta, hauek dira gehien aukeratu diren lanbideak: informatikarekin zerikusia duten lanbideak (informatikaria, youtuberra, programadorea...) lehenengo tokian geratu dira, erantzunen %11,7rekin. Bigarren tokian irakaslea, %10,99, eta hirugarren tokian kirolari profesionala, %10,63rekin. Aurrerago ikusiko dugun bezala, kasu guztietan generoen arteko orekarik ez dago, hau da, kasu batzuetan genero baten aukeraketak igoarazi ditu azkeneko emaitzak.

Gutxien aukeratu den lanbidea politikoa izan da, soilik %2,12k aukeratu baitu. Lehenengo sektorearekin lotutako lanak (nekazaria, abeltzaina eta arrantzalea) ere ikasle gutxik aukeratu dituzte, %2,65ek. Gremioetako lanak (elektrikaria, mekanikoa, e.a) %3,72k aukeratu ditu.

Azterketa hori generoen arabera eginez gero, datu interesgarri batzuk ikus ditzakegu. Nesken artean, gehien aukeratu dituzten lanbideak hauek izan dira: irakaslea (%15,91ek), osasunarekin zerikusia duten lanak, hau da, medikua, erizaina eta albaitaria (%12,88k) eta ileapaintzailea/estilista (%11,36k). Mutilen artean, berriz, aukeratuenak kirolari profesionala (%13,67),

# Lehenengo lepotik burura


**ZERTAN LAN EGIN NAHI DUZU NAGUSITAN? MAIZ EGITEN DIGUTEN GALDERA BAT DENEZ, INKESTA BAT EGIN DUGU IKASTOLAN.**

📷 Testua eta irudiak Argia Ikastola



Argia Ikastolako 5. mailako ikasleak.

NESKEN ETA MUTILEN GUSTUKO LANBIDEEN KONPARAKETA



5. mailako ikasleek egindako grafikoa.

informatikaria (%12) eta polizia edo suhiltzailea (%8,67) izan dira. Ikusten dugun bezala, nesken lanbiderik aukeratuena zaintza edo laguntzarekin lotuta daude. Mutilak, berriz, alderdi publikoago daukaten lanak nahiago dituzte.

Gutxien aukeratu dituzten lanbideak ere ezberdinak izan dira neska eta mutilen artean. Nesken artean, inork ez ditu lehenengo sektoreko lanak aukeratu, eta gremioetako lanak eta piloto/gidaria soilik %0,38k aukeratu ditu. Beraz, hiru kasu hauetan egon diren ia boto guztiak, gutxi izanik ere, mutilenak izan dira. Mutilen kasuan gutxien aukeratu direnak hauek izan dira: ileapaintzailea/estilista (%0,67), politikoa (%2,33) eta sukaldaria (%3,33). Gogoratu behar dugu ileapaintzailea izan dela, nesken artean, gehien aukeratu duten horietako bat.

Bukatzeko, beste kontu bat aztertu dugu: generoen kontuetan zer lanbide dauden orekatuen, hau da, zenbakiak alde batera utzita, zer lanbidek "gaintitzen" duten generoen arteko ezberdintasunak eta zeinetan ikusten diren ezberdintasunik handienak. Lanbiderik orekatuenak politikoa (%1,89 eta %2,33) eta zientzialaria (%7,58 eta %8,33) izan dira. Ezberdintasunik handienak ileapaintzailea/estilista (%11,36 eta 0,67) eta irakaslea (%15,91 eta %6,67) lanbideetan eman dira. ●

**INKESTA**

## Emaitzak interpretatzen

**TUTERA** - Inkesta honek datu interesgarri batzuk eman dizkigu. Galdera batzuk prestatu ditugu, gelan eztabaidatu, eta gure iritzia bildu ditugu:

**NESKAK ZERGATIK EZ DITUZTE GUSTUKO NEKAZARITZA ETA GREMIOETAKO LANAK?**

Lanbide horiek beti mutilekin identifikatu direlako. Telebistan mutil edo gizona izan behar da agertzen dira. Bizitzan ere gehienetan hori gertatzen da: kotxea tailerrera eramaten baduzu, konponketak egiten dituen mutila da, garbigailua apurtzen bada, gizon bat etortzen da konponetzera, traktoreak gizonak eramaten dituzte, e.a. Lan horietan beti gizonak ikusten dira eta hori da dugun eredu.

**MUTILEK ZERGATIK EZ DITUZTE GUSTUKO ILEAPAINZAILEA ETA ESTILO HORIETAKO LANAK?**

Gure ustez, bereizketa horiek txikitatik ematen dira. Haurrentzako jostailuak aukeratzeko orduan dena oso bereiztuta dago, eta dendetan eta katalogoetan mutilen eta nesken gauzak daude eta ezberdinak izaten dira. Mutilak gai batzuk neskenak direla pentsatu ahal dute eta alderantziz. Txikitatik ikasten da hori eta gero ideia batzuk aldatzea zaila da.

**INFORMATIKAREKIN LOTUTAKO LANAK GUSTUKOENAK DIRA. ZEIN IZAN DAITEKE HONEN ARRAZIOA?**

Gaur egun, internet, mugikorra, ordenagailua e.a. asko erabiltzen ditugu eta gai horrekin interesatuta egotea normala da. Gainera, youtuberrak modan daude eta askori youtuberrak egiten dutena interesgarria iruditzen zaigu. Guretzat informetika ongi pasatzeko modu bat da.


- Argia Ikastolako ikasleak

### LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Inkesta bete duen neska edo mutil bakoitzak zenbat erantzun eman ditu?
  2. Nesken kasuan, zein izan da lanbiderik aukeratuena?
  3. Zer gustatzen zaie gehiago mutilei, sukaldaria izatea eta kirolari profesionala?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

### IRABAZLEAK

- OINEZ BALEA (1): Ugaitz Apeztegia (Baztan Ikastola).  
OINEZ BALEA (2): Markel Diez (San Frantzisko Eskola).  
ASEGARCE (4 sarrera): Jon Ardaiz (Paz de Ziganda Ikastola).  
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Haritz Andion (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzia aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.